



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

55. INFORMAZIO BULETINA

> 2011ko Apirila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

- > Europako ekonomia % 1,9 haziko da 2012an, Europako Batzordearen aurreikuspenen arabera, lurralde-banaketa desberdinaz

Europako Batzordeak 2011-2012ko udaberrian egindako aurreikuspenen arabera, Europar Batasuneko ekonomiak mailakako suspertze-prozesuari eutsiko dio, BPGaren % 1,75eko hazkundeaz 2011n, eta % 1,9koaz 2012an.

Egoera hori munduko ekonomiari buruzko ikuspegi positiboan eta enpresen itzaropenen hobekuntza globalean oinarritzen dira. Hala ere, finantza-merkatuen ahultasun-egoerek eta kanpoko ingurune gero eta zailagoak bere horretan dira.

Kontsumo pribatuak, inbertsioaren hazkundearekin eta suspertzen ari diren merkatuen eskariarekin lotuta, neurrizko hazkunderi eusten dio eta enpleguaren hobekuntza arina ahalbidetzen du. Hazkunde-prozesuari eutsi egingo zaio, barne-eskari pribatua indarberritzen den neurrian, enpleguaren bilakaera onean eta aurrezte-tasak moteltzean oinarrituta.

Aldiz, inflazioa bizkor areagotu da (lehengaien prezioaren igoera islatzen du horrek), urte honetarako % 3ko tasekin, eta % 2koekin 2012rako.

Herrialdeen artean hazkundearen banaketak alde nabarmenak ditu. Herrialde batzuek (esaterako, Alemaniak, baina baita ekonomia esportazioetan oinarritzen duten herrialde txikiago batzuek ere) jardueraren igoera sendoa izan dute eta beste batzuk (batez ere inguruko herrialde batzuk), ordea, atzean geratzen ari dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/eu/forecasts/2011_spring_forecast_en.htm



> 2020 estrategia biodibertsiterako: gure bizi-asegurua eta kapital naturala, lehentasunezko sei helbururekin

Europar Batasunaren estrategia berriaren helburua da biodibertsitatearen galera alderantzikatzea eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzen gai izango den ekonomia ekologikorako trantsizioa bizkortzea. Europako 2020 Estrategian barne hartzen da, zehazki, "Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa ba" ekimen enblematikoan.

Helburu orokorra honela zehazten da: 2020an Europar Batasuneko biodibertsitatearen galera eta ekosistema-zerbitzuen narriadura geldiaraztea eta ahal den neurrian horiek lehengoratztea, era berean, munduko biodibertsitate-galeraren aurkako EBaren ekarpena areagotuta.

Aurreko planteamenduan ez bezala (gehiegizko helburuak zituen eta, neurri batean, ez zen eraginkorra), estrategia berria lehentasunezko sei helburutan (eta dagozkien neurrietan) oinarritzen da berariaz, xedea izanik:

- Espezieak eta habitatak babesteko ahaleginak areagotzea.
- Ekosistemak eta horien zerbitzuak mantendu eta leheneratzea.
- Biodibertsitatearekin zerikusia duten helburuak EBaren esparru politiko bidezkoenei lotzea: nekazaritza, basogintza eta arrantza.
- Espezie exotiko inbaditzaileen aurka borroka egitea.
- EBaren ekarpena areagotzea, mundu osoan biodibertsitatearen galera saihesteko.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/environment/nature/biodiversity/comm2006/pdf/2020/comm_2011_244/1_ES_ACT_part1_v2.pdf



> Kultura-industria Europar Batasunean eta Gipuzkoan

Europar Batasunean, 3,6 milioi lagun kultura-sektorean enplegatu dira 2009an: guztizko biztanleria okupatuaren % 1,7. Honela banatzen dira: % 34 argitalpen-jardueretan; % 29 sorkuntza-jardueretan, artistikoetan eta ikuskizunetakoetan; % 16 liburutegi, fitxategi eta museoetako jardueretan; % 11 jarduera zinematografikoetan, bideoetako eta soinukoetan; eta % 10 irrati eta telebistako programazioetan eta emanaldietan.

Suedian, Danimarkan eta Finlandian, kultura-jardueretako enpleguak % 2,3 dira.

Datu horiek Eurostaten argitalpenetik hartuak dira. Bertan, EB-27ko eta estatu kideetako kulturarekin lotutako datuak eta adierazleak jasotzen dira. Jorratutako gai nagusiak kultura-ondareari eta hezkuntzari, enpleguari, enpresei eta kultura-industriako kanpoko merkataritzari, kultura-jardueretan biztanleriaren partaidetzari eta gastu pribatuari buruzkoak dira.

Gipuzkoan, 2009an, 3.780 lagun enplegatu ziren (enplegu osoaren % 1,2). Sektorre hauek nabarmendu ziren: argitalpena (enplegu osoaren % 34) eta sorkuntza-jarduera (% 24).

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-32-10-374



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> Europar Batasuneko migrazioa Mediterraneoaren hegoaldeko herrialdeek duten egoeraren aurrean

Europako Batzordeak migrazioari buruzko jakinarazpen bat aurkeztu du. Bertan, datozen hilabeteetarako ekimen-proposamenei buruzko zirriborroak egiten ditu.

Jakinarazpenean jasotzen denez, Mediterraneoaren hegoaldeko herrialdeetan izaten ari diren proportzio historikoetako gertaerek berretsi egiten dute EBk migrazioaren eta asiloaren gaitan politika komuna eta sendoa izateko beharra. Orain inoiz baino beharrezkoagoa da legegintzan, jarduteko lankidetzan eta hirugarren herrialdeekiko ditugun harremanetan aurrerapen sendoa izatea.

Jakinarazpenaren helburua da orain dela gutxiko eta etorkizuneko proposamenak erakustea, bidezko alderdi guztiak kontuan izango dituen esparruan, EBari eta haren estatu kideei asiloa, migrazioa eta hirugarren herrialdeetako nazionalen mugikortasuna ingurune seguruan kudeatzeko bidea emango dien esparruan.

Ekimenen asmoa da mugetan kontrolak eta Schengeneko gobernantza indartzea, 2012a baino lehen Europako asilo-araubide komuna bukatzea, legezko migrazioari buruzko irizpideak hobeto zehaztea eta gai horren inguruan hirugarren herrialdeekiko harremanen ikuspegi estrategikoa garatzea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/home-affairs/news/intro/docs/1_ES_ACT_part1_v3.pdf



> Youth@Work : gazteak eta ETEak

Europako bost gaztetik batek ez du lanik aurkitzen. Zifra horrek giza talentua eta ahalmena ikaragarri alferrik galtzea dakar, eta datozen urteetarako Europar Batasunaren lehiakortasuna arriskuan jar dezake. Gazteek munduaren "ikuspegi" berria dute. Horrek, sarritan, enpresentzako ideia berritzaileak eta energia edukitzea dakar.

Arlo horretan, Batzordeak apirilaren 29an Youth@Work ekintza aurkeztu zuen, gazteak enpresa txiki eta ertainekin harremanetan jartzeko asmoz.

Youth@Work ekintzaren helburua da gazteen artean dauden eskariak antzematea, horiek Europako ETE-etara bideratzea eta, era berean, horietan lana sustatzea, euren enpresa sortzeko interesa duten gazteentzako abiapuntu gisa.

Youth@Work kanpaina EURES sareak sustatutako Europako Enplegu Jardunaldietan sartuko da 2011ko maiatzetik 2012ko maiatzera bitartean. EURES sarea bitartekotza-zeregina betetzen du, eta enpresei eta gazteei informazioa eta aholkularitza eskaintzen dizkie.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/youthonthemove/>

<http://ec.europa.eu/eures/home.jsp?lang=es&langChanged=true>



KOHESIO-POLITIKA

> OPEN DAYS 2011, 206 eskualde eta hirirekin

27 estatu kideetako 206 eskualde eta hirik, eta Europar Batasunetik kanpoko 8 herrialdek hartuko dute parteko OPEN DAYS 2011 ekintzan, eskualde eta hirietako Europako astean. Horren barruan, 100 mintegi baino gehiago egingo dira urriaren 10etik 13ra bitartean.

Gainera, EBko Eskualdeen Batzordeak 35 bat lantegi hartuko ditu Topagunearen esparruan («Meeting Place»). Horietako gehienak elkarte publiko-pribatueta oinarrituko dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2011/index.cfm

> Eusko Jaurlaritzaren laguntzak Europako gaien berri eman eta hedatzeko, eta Euskadi-Akitania lankidetzarako

Apirilaren 29ko EHAAn, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzako idazkari nagusiaren ebazpena argitaratu zen. Horren bidez, 2011. urterako Europako gaiekin lotutako proiektuak egiteko laguntzetarako deialdia egiten da.

Diru-laguntzak, 97.000 euroko zenbatekoaz, Europar Batasunaren ekintzaren hedadura azaltzera zuzendutako jardueren berri emateko proiektuak sustatzera bideratuko dira.

Era berean, egun horretako aldizkarian bertan, Akitania-Euskadi lankidetzako funts komunaren kargurako laguntzen deialdia argitaratu zen. Laguntza horiek (600.000 euro 2011 eta 2012rako) proiektu komunetan euskal agente sozial eta ekonomikoen ekintza bultzatzea dute helburu, Akitaniako eskualdeko partaideekin, enplegua eta jarduerak sortzeari lehentasuna ematearren.

Bi deialdietara aurkezteko epea maiatzaren 30ean amaitzen da.

Informazio gehiago:

http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20110429&a=201102354

http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20110429&a=201102355



e-LIBURUTEGIA

> Zientzia, teknologia eta berrikuntza Europan

Eurostaten laburpen-argitalpenak datu eta adierazle estatistikoaren sorta zabala aurkezten du, erakunde horrek landutako informazio-iturrietatik abiatuta.

Hiru atal nagusi hauetan egituratzen da: I+G-n inbertitzea (aurrekontuk eta gastua), jakintzaren giza baliabideak (I+G-ko langileak, eta zientzian eta teknologian enplegatutako pertsonak), eta produktibitatea eta lehiakortasuna (berrikuntza, patenteak eta goi-mailako teknologia).

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-31-11-118

> Gobernuaren kalitatea estatu kideetan eta EBko eskualdeetan

Gotenburgoko Unibertsitateko The Quality of Government Institute txostenak, DGRegio-k finantzatutakoak, gobernantzari buruzko adierazleen sorta zabala aztertzen du. EBko estatu kide askok adierazle guztietan "huts egiten" dutela erakusten du.

Gobernantza txarrak bertan behera uzten du garapen soziala eta ekonomikoa, eta kohesio-politikaren eragina murriztu dezake; esaterako, hazkunde ekonomikoa oztopatuta, ingurumenari kalte eginda edota ongizate eta segurtasun pertsonala murriztuta.

Txosten horretan ondorioztatzen da EBrako garrantzi bereziko lau gai hauek daudela: ustelkeria, zuzenbide-estatua, gobernu-eraginkortasuna, eta boza eta kontu-ematea.

Azterlan hori aitzindaria da EBko gobernuaren kalitatea eskualde-mailan neurtzen. Amaieran, eskualde-gobernuaren kalitatea nola hobetu daitekeen aditzera ematen duten hamar kasu-azterlan erakusten ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/newsroom/pdf/20110504_shortnote_governance.pdf

http://ec.europa.eu/regional_policy/information/studies/index_en.cfm#1



ADIERAZLEAK

> High-tech ezagutzaren inguruko zerbitzu intentsiboak Gipuzkoan eta Europan

Eurostatek duela gutxi egindako laburpen-azterlan batean jasotzen denez, high-tech ezagutzako zerbitzu intentsiboen sektorean enplegatutako langileak (EB osoan 5,7 milioi lagun enplegatzen dituzte) 2009an enpleguaren % 2,6 ziren. Tasa hori % 4,2koa da Suedian, eta % 4koa Finlandian.

Gipuzkoan, urte berean, 7.183 lagunek egin zuten lan sektore horietan: Gizarte Segurantzaren izena emandako biztanleriaren % 3. Horietatik % 42 ikerketa- eta garapen-enpreetan egin zuten lan; % 23k aholkularitza eta informatika-zerbitzuetan; % 24 ikus-entzunezkoetan, irratan, telebistan eta informazioan; eta % 12 telekomunikazioetan.

Bestalde, Europar Batasunean, 2,4 milioi lagun enplegatu ziren high-tech manufaktura-sektoreetan (farmazia-produktuak, informatika eta elektronikakoak, eta eraikuntza aeronautikakoak): biztanleria okupatuaren % 1,1. Gipuzkoan zenbatetsitako ehunekoa zertxobait txikiagoa da.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-31-11-118

> Gipuzkoako industria krisi ekonomikoan

Eustatek argitaratutako industria-estatistika 2009. urtekoa da. Horretan, modu gordinen islatzen da krisiak Gipuzkoako industrian izan duen eragina.

Urte horretan, salmentek % 23 egin zuten behera, eta enpleguak % 10. Garrantziko beste magnitude batzuk ere, hala nola, inbertsioak, ustiapen-soberakina edo soldata-kostuak, asko jaitsi ziren: % -40, % -36 eta % -8, hurrenez hurren.

Gipuzkoako industriari dagokion negozio-zifraren egiturak aditzera ematen duenez, % 33 balio erantsia da. Balio erantsiaren bi heren langileei ordaintzera zuzentzen dira, eta gainerako herena antzeko kopuruan banatzen da amortizazioen eta soberakin garbiaren artean.

Informazio gehiago:

http://eu.eustat.es/ci_ci/estadisticas/tema_56/opt_0/tipo_1/ti_Industria/temas.html#axzz1Mu0Y7iWt



> Debagoiena eta Goierri, biztanleko BPG handieneko Gipuzkoako eskualdeak

2008. urteari buruzko Eustaten zenbatespenen arabera, Gipuzkoan, biztanleko BPGa 31.951 euro da.

Barnealdeko industria-eskualdeetan (Debagoiena eta Goierri), indize hori balio gorenetara iristen da: hurrenez hurren, lurraldearen batez bestekoa % 28an eta % 19an gainditzen dute.

Beste muturrean, Bidasoa Beherea, Donostialdea eta Urola Kosta kostaldeko eskualdeek, eta Debabarrenak ere, aberastasuna sortzeari dagokionez biztanleriarekiko indize txikiagoak dituzte. Eskualde horietan, indizea Gipuzkoa batez bestekoa baino baxuagoa da. Azkenik, Tolosaldea lurraldearen batez bestekoan dago.

Per capita aberastasuna banatzeko eskualdeen arteko desoreka hori, zati batean, produkzioaren eta Gipuzkoako lurraldean biztanleen banaketa desberdinaren ondorio da.

Informazio gehiago:

http://eu.eustat.es/ci_ci/estadisticas/tema_10/opt_1/tipo_1/ti_Kontu_ekonomikoak/temas.html#axzz1Mu0Y7iWt